

## INFORMAZIO INTERESGARRIA

### Zer da intzidentzia bat

Intzidentziatzat hartuko da etxebizitzan nahiz eraikineko eremu komunetan gertatutako akats tekniko oro (materialena edo funtzionamenduarena). Intzidentzia motaren arabera (kontsultatu [Intzidentzia motak](#) atala), akats horien konponketa Donostiako Etzegintza Enpresa Erakunde Publikoaren edo errentariarena ardura izango da; azken kasu horretan, maizterrak intzidentzia horren berri eman beharko dio entitateari.

### Intzidentzia motak

#### [Alokairuaren hasiera \(lehen 3 hilabeteak\)](#)

Errentamendu-kontratua sinatu eta lehenengo 3 hilabeteetan, errentariak etxebizitzan antzemandako edozein akatsen berri eman beharko dio Donostiako Etzegintza Enpresa Erakunde Publikoari, berak eragindakoak ez badira. Erakundeko teknikariek baloratuko dute ea konponketarik dagokion, osorik edo partzialki, eta, hala badagokio, dagokion gremioa bidaliko dute.

#### [Alokairuko 3 hilabeteetatik aurrera](#)

- **Errentariaren erantzukizunaren konponketak**

- Konponketa txikiak

Kontratuaren lehen 3 hilabeteak igaro ondoren, errentariak bere gain hartu beharko du etxebizitza osatzen duten elementuak mantentzeko ardura. Hau da, errentariaren erantzukizuna izango da errentan hartutako elementuen erabilera arruntaren ondoriozko higadurak edo maizterrak berak eragindako beste edozein kalte konpontzea, eta **ez da beharrezkoa izango inolako intzidentziarik erregistratzea.**

- Etxetresna elektrikoak

Etxetresna elektrikoek 2 urteko bermea dute instalatu zirenetik. Denbora-tarte horretan gertatzen den edozein matxura Donostiako Etzegintza Enpresa Erakunde Publikoari jakinarazi beharko zaio, horretarako prestatutako web-plataformaren bidez, eta **intzidentzia berri bat erregistratu beharko da.**

Bermearen bi urteak igaro ondoren gertatzen bada matxura, maizterren kontura izango da aparatua konpontzea, salbu eta konponketak kostu oso handia badakar edo konpontzerik ez badago; hori dagokion zerbitzu tekniko ofizialaren txosten teknikoaren bidez justifikatu beharko da. Txosten hori entitateari aurkeztu beharko zaio, balioetsi dezan, eta **intzidentzia berri bat erregistratu beharko da** web-plataforman, txosten hori erantsita. Balioztatu ahal izateko, txostenean matxuraren deskribapena, konponketaren aurrekontu zenbatetsia eta maizterren datu pertsonalak jaso beharko dira. Nolanahi ere, maizterrak berak hartuko du bere gain zerbitzu teknikoari dagokion gastua Donostiako Etzegintza Enpresa Erakunde Publikoak txostena balioztatzen badu, aparatua aldatuko da, antzeko ezaugarriak dituen batekin, maizterrentzat inolako kosturik gabe.

- Giltzak eta aginteak

Giltzak edo aginteak galdu edo ostuz gero, salaketa aurkeztu beharko da Udaltzaingoaren aurrean, eta gertaera entitatearen salmenta ondoko web-plataforman erregistratu beharko da, salaketa hori erantsita.

- **Donostiako Etzegintza Enpresa Erakunde Publikoa ardurapeko konponketak**



Entitatearen kontura izango dira **instalazio komunetatik** datozen akats teknikoak edo matxurak. Adibide gisa, eta beste batzuk alde batera utzi gabe: ur berorik edo berokuntzarik eza, arazo elektrikoak, ur-ihesak edo hodi orokorretako buxadurak, su-alarmak joka, arazoak garaje-ateekin, pasatzeko ateekin, eremu komunetako leihoekin edo atariko ateekin, igogailu matxurak, etab.

### Nola komunikatu intzidentzia bat

Intzidentziak **telematikoki** erregistratu beharko dira entitatearen web plataformaren bidez.

Plataforma honetan intzidentzien bilakaera jarraitu ahal izango da, honako egoera hauen arabera:

- Egiteke: intzidentziaren egoera erregistratzeko unean.
- Abian: intzidentzia dagokion gremioari jakinarazi zaio.
- Amaituta: intzidentzia konpondu da.
- Itxia: balioztatutako konponketa.
- Baztertua: intzidentzia ez da onartu.

Eraikinaren eremu komunei buruzko intzidentziak web-plataformaren bidez eskatu behar dira, **baina ezin izango da haien bilakaera jarraitu.**

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi erabiltzailearen gida.

Era berean, intzidentziak **aurrez aurre** erregistratu ahal izango dira Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren jendaurreko arreta-bulegoetan, aldez aurretik **hitzordua eskatuta.**

### Bestelako zalantzak edo kontsultak

Beste edozein zalantza edo kontsulta **tekniko** izanez gero, mezu elektronikoko bat bidali beharko da helbide honetara: [mantentzea\\_etxegintza@donostia.eus](mailto:mantentzea_etxegintza@donostia.eus)